

OHIKO UDALBATZARRA

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2008ko ekainaren bostean, gaueko hamarrak hamar gutxiago direnean, bildu dira, Ohiko Udal Osoko Bilkura egiteko ondoko Korporatiboak:

Iñaki Oiartzabal Zinkunegi-Alkate Lehendakaria

Joseba Iñaki Labaka Beristain-Zinegotzia.

Luis Berrondo Lanceta-Zinegotzia.

Luis Arzallus Amenabar-Zinogotzia.

Iosune Arruti Eizagirre-Zinegotzia.

Jose Luis Albisua Lasa-Zinegotzia.

Bittor Astigarraga Zugasti-Zinegotzia beranduago etorriko da bilkura honetara arrazoi justifikatuengatik.

Idazkari lanetan, Leire Arteaga Zumeta Udaletxeko Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea.

Alkateak hasera eman dio bilkura honi ondoko gai zerrendaren arabera:

1.- AURREKO UDALBATZARREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA ONESPENA.

Zinegotziek, 2008ko maiatzaren zortziko ohiko udalbatzarren akta irakurri eta Jose Luis Albisua Lasa zinegotziak ondoko zuzenketak egitea eskatu du, zortzigarren puntuaren erabakiei laugarren erabakia eranstea “**Laugarrena.**- Herriko prentsari (Urola Kostako Hitzari) erabaki hau jakineraztea” bozketa egin dute eta aldaketa horrekin aho batez onartu da akta.

2.- KOMUNIKAZIO OFIZIALEN BERRI EMATEA.

- Iraola Zaharra baserrira argindarra jartzeko planean duen ekarpena egin du Foru Aldundiak 6.006,85 euro, udalari 924,13 euro dagokizkio eta Iberdrolari 2.310,33 euro.
- Haur, nerabe eta gazteentzako jarduera, plaz, programa edo zerbitzuak aurrera eramateko 18.000 euroko dirulaguntza ematea erabaki du Foru Aldundiak.
- Apirileko uren analisiak ura edangarria dela eman dute.

3.- ERREZILGO HIRI ANTOLAKETAKO ORDEZKO ARAUAK BERRIKUSTEKO KONTRATUA ESLEITZEKO BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ONESPENA ETA ESLEIPEN JARDUERARI HASIERA EMATEA.

Alkateak hitza hartu du eta zinegotziei Errezilgo Hiri Antolaketako ordezkoko arauak berrikusteko kontratua esleitzeko espedientea osatu dela jakinerazi die, espedientea ondoko dokumentazioarekin osatuta dago:

Kontratuaren beharraren justifikazio dokumentoa

Klausula ekonomiko administratibo partikularrak eta preskripzio teknikoan dokumentua.

2008 ekitaldiko aurrekontuan kontu sail egoki eta nahikoa dagoela egiaztatzen duen agiria.

Idazkari-Kontuhartzailearen txostena.

Espedientean prozedura eta esleipen irizpideak justifikatu dira.

Proposatzen da espedientea onartu eta esleipen prozedura irekitzea.

Ondoren Alkateak proposatu du ondoko erabakiak onartzea:

Lehena.- Errezilgo Hiri Antolaketako ordezeko arauak berrikusteko kontratua esleitzeko espedientea onartzea.

Bigarrena.- Kontratu honek eragingo duen gastua onartzea. 2008 ekitaldiko aurrekontu orokorrean aurikusitako kontu sailari egozteka ekitaldiko zatia eta datorren urteetan zehar sortuko den gastua estaltzeko konpromezu kredituak onartzea.

Hirugarrena.- Esleipen prozedura irekitzea, proposamenak aurkezteko 15 laneguneko epea emanaz erabaki honen iragarkia GAOn argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.

Laugarrena.- Erabaki honi publizitatea ematea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarkien taulan argitaratuz klausula ekonomiko administratibo partikularren laburpena eta esleipen prozeduraren arauak.

Bozketa egin dute ondoko ondorioekin: aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta, Luis Arzallus Amenabar, Iosune Arruti Eizagirre eta Jose Luis Albisua Lasa, kontrako botorik ez dago eta abstentziorik ez dago. Beraz, akordioa onartua gelditzen da.

4.- ERREZILGO AZOKA ETA ERALDAKETA ZENTROAREN USTIAPENA EMAKIDA ADMINISTRATIBOAREN ESLEIPEN PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartuz azaldu du: Errezilgo Udalbatzarrak 2008ko apirilaren hiruan egindako ohiko bilkuran erabaki zuela, Errezilgo denda eta eraldaketa zentroaren kontratazio administratibo bereziaren esleipena, prozedura ireki eta lehiaketa bitartez, arautuko duten baldintza ekonomiko administratibo eta teknikoak onartzea eta esleipen jarduerari hasiera ematea. Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2008ko apirilak 17ko 73 zenbakidun aldizkarian. Erakusketa publikoko epean proposamen bakarra aurkeztu zen. 2008ko maiatzaren 8an egindako Kontratazio mahaiak proposamena egokia dela eta eskatutako baldintzak betetzen dituela frogatu ostean udalbatzarrari proposatzen dio Errezilgo denda eta

eraldaketa zentroaren kontratazio administratibo berezia Jone Irulegi Amenabar y otros S.C.ri esleitzea aurkeztutako proposamenaren arabera, hots, proposamen ekonomikoa 1.440 euro urtean eta ondorengo hobekuntzekin: beharrezko azpiegituraz hornitu: Dendan: bitrina, apala, frigorifikoa, kortadora, pisua ... eta eraldaketa zentruan: pisuak, kazuelak, poteak, Herritarrei zerbitzu zabala eskaini, osasun erregistroa eraldatutako produktoentzat erabili, “manipulatzailen txartela” eguneratua izan, herritarren beharretara egokituriko ordutegia jarri, erantzukizun zibileko poliza, 300.000 eurokoa kontratatu eta esleitzen diren guneak aseguratu.

Ondoren Alkateak proposatu du ondoko erabakiak hartzea:

Lehena.- Errezilgo denda eta eraldaketa zentroaren kontratazio administratibo berezia Jone Irulegi Amenabar y otros S.C.ri esleitzea, urteko 1.440 eurogatik eta proposamenenarekin batera aurkeztutako hobekuntzekin. Kontratuaren epea 2 urtetakoa izango da, bi urteka luzagarria gehienez ere 10 urte arte.

Bigarrena.- Alkatea ahalmentzen da kontratu hau formalizatzeko jakinerazpena egiten denetik 10 laneguneko epean.

Hirugarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarkien Taulan argitaratzea.

Bozketa egin dute ondoko ondorioekin: aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta, Luis Arzallus Amenabar, Iosune Arruti Eizagirre eta Jose Luis Albisua Lasa, kontrako botorik ez dago eta abstentziorik ez dago. Beraz, akordioa onartua gelditzen da.

5.- ZENTRO BALIOANITZAREN KUDEAKETARAKO KONTRATAZIOARI AMAIERA EMATEA BEHAR BADA.

Alkateak jakinerazi du Errezilgo Zentro balioanitzaren kudeaketaren kontratuak lau urte betekoa dituela abuztuaren amaieran. Kontratuaren epea urte batekoa zela luzagarria urteka 5 urteko gehieneko epe arte. Orain arte urtero berritu da. Ondoko arazoa planteatu nahi duela: Errezilgo udalak zentro balioanitzaren kontratua ordaintzeko modulo finkoa eta modulo aldakorra bereizten ditu. Hasera batean Foru Aldundiak gomendatuta modulo finkoaren barne sartzen ziren etxebizitza tutelatuak eta eguneko zentroak sortzen zituen gastu finkoak, hots, erabiltzailerik egon gabe sortzen ziren gastuak eta horrela esleitu zion Udalak Hots Atsegin enpresari. Gutxi gora behera sei hilabete beranduago Bidegoianek bere herriko zentro balioanitza esleitzeko garaian erabaki zuen modulo finkoa bereiztea eta etxebizitza tutelatuak inor ez zegoenean ez ordaintzea zati horri zegokion modulo finkoa. Etxebizitza babestuen

modulo finkoa ia 8.000 euro tara iristen da B.E.Z eta hobari industrialak sartuta. Kontua da, Bidegoian eta Errezilgo zentroak kudeatzen duten enpresa bat eta berdina izateak bi zentro horiek harreman estua mantentzea suposatzen duela, horri gaineratu behar zaio Bidegoian ordezkaria delako eta beste zenbait arrazoiengatik Errezilgo eguneko zentroko erabiltzaileak Bideoiango zentroan egoten direla hango erabiltzaileekin batera. Errezilgo zentroan asteazkenetan egonez soilik.

Agian, erabiltzaileen onurarako izango da baino adierazgarriena da bi zentroak intererlazionatuak daudela. Eta harreman estu hori mantenduz Errezilgo Udalak ez du zergatik gastu handiagoa asumitu beharrik, are eta gutxiago Errezilgo zentroa denean gutxien erabiltzen dena.

Gaueko hamaikak hogeitun gutxiago direnean Bittor Astigarraga Zugasti zinegotzia bertaratu da.

Alkateak hitza eman die zinegotzietan gaiari buruz duten iritzia azaldu dezaten, lehenik Jose Luis Albisua Lasa zinegotziak hartu du esanez zerbitzua kontratua moztea arriskutsua iruditzen zaiola agian ez delako garaiz esleituko eta zerbitzua moztuta gelditu daitezkelako eta hori okerragoa dela. Bere iritziz Bideoiango Udalarekin hitz egin behar dela eta gaia bi Udalen artean landu. Ondoren Joseba Iñaki Labaka zinegotziak hartu du hitza esateko gaiari buruz duen lehen berria dela ez zekiela hori horrela zenik eta bere iritziz ere zerbitzuak ondo funtzionatzen duela, Errezildarrak gustora daudela, baita Udala ere baino egia dela udalak ez duela zergatik gastu handiagoa asumitu beharrik eta Bideoiarenekin harremanetan jarri eta egoera honi konponbide bat bilatu behar zaiola baino zerbitzua moztu gabe.

Alkateak ondoko proposamenari buruzko bozketa egitea proposatu du:

Lehen.- Errezilgo zentro balioanitzaren kudeaketarako Hots atsegin enpresarekin egindako kontratuari amaiera ematea.

Bozketa egin dute ondoko ondorioekin: aldeko botorik ez dago, kontrako botoak Iñaki Oartzabal Zinkunegi, Bittor Astigarraga Zugasti, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta, Luis Artzallus Amenabar, Iosune Arruti Eizagirre eta Jose Luis Albisua Lasa, eta abstentziorik ez dago. Beraz, akordioa aho batez ezetsi dute.

6.- SAN ANTONIO JAIETAKO EGITARUA ETA AURREKONTUAREN ONESPENA.

Alkateak Luis Artzallus Amenabar zinegotziak eman dio hitza. Luis Artzallus Amenabar zinegotziak esan du festa batzordeak dagoeneko festa egitarua antolatu duela. San

Antonio jaiak ekainaren 13, 14 eta 15ean izango dira gehi ekainaren 21 Akerra elkarteak antolatzen duen usakume tiraketa. Ekainaren 13 ostiralean San Antonio eguna, txupinazoa eta meزاز gain, hamaiketakoa egingo da herriko trikitilari eta bertsolariekin. Arratsaldean ume jolasak eskolako patioan eta gauean herri afaria, afalostean play back emanaldia eta kupela taldea, goizaldean txorizo egosi pintxoak Borondegin. Ekainak 14an, larunbata, krossan herriko gatzetxoentzat, arratsaldean triki poteoa eta gauean bertso saioa frontoian eta ondoren izer, lutzurdio eta Larrañaga trikitilariak. Igandean eguerdian herriko dantza eta bertso ikasleen emanaldia. Arratsaldean harri txikien eta txingen txapelketa eskolako patioan. Azkenik, ekainaren 21ean, Akerra elkarteak antolatuta usakume tiraketa bildingo zelaietan. Luis Albisua zinegotziak ohartarazi du jaietako esku programetan jasota dagoela larunbat eguerdian sega kanporaketa izango dela Erdoiztan baino hau atzeratu egin dutela aste bete eta Hitzara oharra bidaliko dutela. Azkenik esan du herriko krosaren dominak falta arren aurrekontua 6.500 eurotakoa izango dela, 2008 ekitaldirako aurrikusitako kopuruaren barne.

Beraz, Alkateak ondoko proposamena onartzea proposatzen du:

Lehena.- 2008 ekitaldiko San Antonio jaietako egitaraua eta aurrekontua onartzea.

Bigarrena.- 2008 ekitaldiko aurrekontuaren 1.0000.226.452.00.05 kontu sailari 6.500 euro egozte.

Hirugarrena.- Jaietako egitarauari zabalpena ematea esku programen bitartez, Hitza aldizkarian argitaratuz eta herri irrtiaren bitartez.

Bozketa egin dute ondoko ondorioekin: aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Bittor Astigarraga Zugasti, Luis Berrondo Lanceta, Luis Arzallus Amenabar, Iosune Arruti Eizagirre eta Jose Luis Albisua Lasa, kontrako botorik ez dago eta abstentziorik ez dago. Beraz, akordioa onartua gelditzen da.

7.- ORDAINAGIRIEN ONESPENA.

Ez daude.

8.- ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.

- San Antonio jaietan artesaniako 3 postu jartzeko baimena eman da.
- San Antonio jaietan Erniope elkarte jendeari irekita edukitzeko baimena.
- Galarraga Bitarte baserri ondoko garajearen jarraian ardi-gaztak heltzeko kamara bat jartzeko baimena luzatu da.
- Pagarte lursailaren bereizketa egiteko baimena.
- Urdalleta Saletxe baserriaren teilatua eta egitura berritzeko baimena.

- Elizaren teilatuko konponketa lanak egiteko baimena.
- ESAITek abuztuan antolatzen duten ibilaldiko etapa batean Errezildik pasako direla eta Errezilgo Udalak ongi etorri harrera antolatzea eskatu dute. Etapa hau Tolosa-Azpeitia egiten duena da eta abuztuaren zazpian izango litzateke.

BERRIAK

- Hitzako dirulaguntzari buruz, kejarik ez dagoenez dirulaguntza ematea proposatzen duela.
- Artañolan luizi izan zela eta Bidingo bidean zuloa, biak euriteek sortutakoak.
- Borondegri inguruan egiten ari den obraren atzeko eskoilera erori egin zela Egurki enpresaren makina bat eraman eta puskatuz.

9.- NORBERAK LEKARKENA, GALDERAK, MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK.

Ez daude.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko hamabiak direnean, Alkateak ohiko udalbatzar hau amaitutzat ematen du eta nik, Idazkari gisa Akta jaso dut.

Alkateak

B. Idazkari Kontuhartzaileak